


GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

43. zenbakia

94ko martxoak 11



Aistrainen ola berria

Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak
gogor diharduela euskal gizarte
eta enpresagintzaren alde. Oso
Kutxa geure-geurea dela. Euskal
Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen
al duzu gure profesionaltasun
-eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura
gehiago. Familientzat, interes han-
diagoak kontu korrontean eta ohiz-
ko libretan. Beste kutxetan baino
gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da, profesio-
naltasun garbiko bidean.

 **inlingua**
hizkuntzak

INGELESA, ALEMANIERA,
FRANTSESA ETA ARABIERA

Matrikula zabalik
Jatorrizko irakasleak
Maila guztiak

J.M. Iturrioz, 11-1. ☎ 16 05 72
BEASAIN
Elkano k., 8-1. ☎ 88 11 37
ORDIZIA
Iparragirre, 8-1. ☎ 72 22 23
ZUMARRAGA



*i*txura baino
gehiago...

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORLA

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

43. zenbakia. 94.eko martxoak 11. Debaldeko alea. Tirada: 3.500 ale. 3.000 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak"
Kultur Elkartea.

Dorre-etxea, 1. (Correos-gainean).

Tfna: 889612. Faxa: 161463.

124 posta kutxa, Ordizia.

Erredakzioa: Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea: Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea: Dionisio Amundarain, Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz,

Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Esti-txu Imaz.

Kronista eta kolaboratzaileak: Marijoxe Madariaga, Argider Mujika, Joxe Begiristain, Rufino Iraola, Gurutze Aldabe, Aloña Galarraga, Aitor Calvillo, Nekane Altuna, Antton Idiakez, Nagore Goiburu, Gabino Murua, Joseba Telleria, Marijo Galparsoro, Antonio Bea.

Azala: Fotoetxe

Fotokonposaketa eta maketazioa:



GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



12. Erreportaia: *Aristrainen ola berria*

NON ZER

4. eskutitzak

5. agenda: *intereseko telefonoak, gastronomia, bota ber-tsoa, Ordiziako azken feria, Zegama eta Beasaingo kultur egitarauak, debaldeko iragarkiak, egutegiak...*

8. iritzia txandaka: *Biolentzia sexista*

9. besteek esana, inkesta: *Joaten al zara sagardo-tegietara?*

10. Goierriko berri:

14. hemen eta orain: *Bi egun Oianguren Ingurugiro Eskolan; arrastoan: Miren Urkiola.*

15. herriz herri: *Idiazabal, Lazkao, Ordizia, Zaldibia, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Olaberria, Gabiria eta Segura.*

22. kirola: *Bi lerrotan*

23. goierritar klasikoak: *Iztueta zaldibitarra.*

GOIERRITARRA etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA..... TLF.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du

GOIERRITARRAK
GOIERRIKO
UDALEN
LAGUNTZA DU

Agur t'erdi lagunak!

Eskerrik asko eskaini zeniguten laguntzarengatik. GOIERRITARAREN bilduma osatu genuen eta enkuadernatzera eraman ere bai. "Punto y Hora" aldizkariaren 363. alea eta 416.a lortu nahiean gabilta orain. Hamabostekarian iragarpen bat jartzea eskertuko dizuegu, zuen irakurleetatik lortzerik ote dugun ikusteko. "Jakín" aldizkariaren 15. alea ere lortu nahi genuke. Euskaltzaleen artean baten batek ale hori errepikaturik balu eta eskeiniko baligu eskertuko genioke. Helbideak: Urdaneta k., 19-Ordizia eta "Mendu", Ategorrieta Hirib., 23-1. esk. 20013 Donostia. Tel.: 271713. Eskerrik asko Joxe Begiristaini Ataungo kronika eta gure izebaren argazkiarengatik, bestalde. Gure aitak asko estimatu du. Mila esker zuen aditasun eta zerbitzuarengatik. Hurrengorarte agurtzen zaitue,

Begoña Eskisabel Sukia (Ordizia)

Kaixo lagunak!

Goierritarra izanik, Legorretako semea, hemen nator zuen laguntza lortu nahiean. Gure Anai Manex Erdozaintzi-Etxart-en izenean herritarrentzat liburutegi bat irekiko ote dugun, honek utzi zigun aldizkariaren bildumak osatzen ari gara. Hauetako bat da "Anaitasuna". Hemen bidaltzen dizuet falta zaizkigun aleen zerrenda: 175. zenbakiaren aintzineko guztiak eta 238, 242,

243, 244, 248, 249, 250, 251, 252, 253, 255, 256, 279, 302, 311, 327, 331, 337, 344, 346, 349, 350, 375, 399 eta 410.ak. Hoiiek lortzen lagundu izeaiguzue mesedez. Donapaleuko herritarrek eskertuko dizue. Gure helbidea: Frantziskotar Anaidia, 1, Xilbaltarre Hiribidea, F-64120 Donapaleu. Tel. 59657137. Zuen erantzunaren zain, laster arte agurtzen zaituzte,

Jon Joxe Iturrioz (Donapaleu)

Lazkaotik hainbat galdera

Aurreko alean hementxe agertutako eskutitzari jarraipena edo nire ikuttua gehitzea erabaki dut. Ni ere izugarri mindu nau Parroki aurreko zuhaitza botatzeak. Posible ote da alde batetik irakasleak ahal den guztia birziklatu egin behar dela irakatsi nahian saiatzea haurrekin ikastetxeetan, Sasieta Mankomunitatea sortu eta zaborren prozesua ahal den txukun eta naturalena kontrolatzen saiatzea, bazterretan hainbat "Zuhaitz-egun" antolatzea, e.a., gero gauek goizera edo ez dakitze arrazoi medio (enbarazo egiten al zuen?, Albixunen egiten ari diren etxea estaltzen al zuen...?) ipurditik moztu eta fuera!, behin betiko kentzea?

Mila galdera sortzen zaizkit gai honen inguruan: zergatik ez zenuten zuztar eta guzti atera eta beste nonbait aldatu? Zergatik egin zenuten lana ixilka, inor konturatuko ez ginelakoan? Zergatik ari zarete Zelaia zementuz betetzen? Ez al daukagu eskubiderik berdegunea egunero eta etxetik baterre mugitu gabe gozatzeko? Zergatik egiten dituzue jolas eta atsedan parke guztiak eredu berekoak (Aresokoa, San Josekoka, Abankokoa...), zementuzkoak alegia? European omen gaude, baina Europako hainbat herrialdetan belar mehe eta goxozko parkeak egiten dituzte (bertan izan naizelako ezagutzen ditut) eta belar hori ez dute ikusteko soilik jartzen; jendeak zapal dezake, bertan eser daiteke, etzan... Gure Lazkaoko herria Europatik urrun dago alde horretatik, dudarik ez! Eskerrak mendia ere kaletik hurbil dugun eta esfortzu handirik egin gabe ibil gaitezken belar gainean...

Eta bukatzeko beste galdera bat, inork erantzun badiezazkidake guztiak...: ezer egiteko asmorik ba al duzue Komendrai baserrirako bidean, bidearen eskubitara dagoen Dukearen arboladi dotorearekin? Zementu eta harriaz ez joan hara ere, otoi! Txukuntzen premia badu baina horrelako zerbait egin da baino askoz hobe dago dagoen bezala, xilbestre-xilbestre. Egia bihurtzen ari zarete "Lazkau, jun da nazkau..." esaera zaharra. Zorionak!

Miren (Lazkao)

Giro jator eta atsegina



BASAKANA

ITU RRIIOZ 11
BEASAIN

KEMEN KIROLAK



Zumalakartegi, 1
Tfno.: 88 51 68
ORMAIZTEGI

ARDOTEGIAK

— B —
ELOSEGI
— D —
E
— G —
ARACO
— S —

Poligonoa 201 Tfnoak.: (943) 88 09 79-88 80 89
Fax: (943) 88 80 89 **OLABERRIA (Gipuzkoa)**

Ctra. de La Puebla, s/n Tfnoa.: (941) 10 02 09
LAGUARDIA (Rioja Alavesa)



Intereseko Telefonoak

GOIERRIKO UDALETXEAK

ATAUN:	881011
ARAMA:	881170
BEASAIN:	885900
EZKIO-ITSASO:	729303
GAINTZA:	889564
GABIRIA:	880734
ITSASONDO:	881170
IDIAZABAL:	801064
LEGORRETA:	806225
LAZKAO:	886408
MUTILOA:	801006
OLABERRIA:	881434
ORMAIZTEGI:	882660
SEGURA:	801006
ZALDIBIA:	880357
ZEGAMA:	801115
ZERAIN:	801724

Errezeta



Jaione Zubizarreta
tak emana

Etxe-Alai jatetxea
Altzaga

**INTXAUR ETA MAHAS-
PASEN PUDING-A**

Osagaiak: 100 gr bizkotxo,
100 gr intxaur zurituak, 50
gr mahaspasa, 4 arraultz, li-
tro 1/2 esne, 6 goilarekada
azukre eta gurina moldea-
rentzat.

Arraultzak eta azukrea
nahastu eta pixkanaka esnea

gehitzen joan, ondo batituz.
Gurinez igurtzitako molde
batetan, behean bizkotxo
jarri, ondoren intxaurrak eta
mahaspasak eta gainetik
aurreko nahasketa jaurti.

Bainu Marian jarri eta la-
bean egosi tenperatura er-
dian, egin arte. Moldetik
atera eta hotzean mahairatu.

Bota bertsoa



Alaitz Sarasola
Gaia: Martxoak 8
Doinua: "Sentimendua
sartu zitzaidan"

Martxoak zortzi delako horri
eskaini asmoz arreta,
nere iritzia azaltzea da
ase nahi dudana apeta;
emakumeen omenez edo,
urtean behin a zer festa,
baina nolatan izan dezaket
barrua pozez beteta,
gainerantzeko egun guztiak
gizonenak dira eta.

Emakumea naizen aldetik
badut kantuz zer hustua:
zertan jarraitu beste horiek
egindako arrastua?
Uka dezagun behin eta berri-
z menpekotasun postua,
gizarte honek eskaintzen digun
bizimodu kamustua,
berdintasuna baldin badugu
gure xede amestua.

Unanue

GOZOGINTZA

Nagusia, 17 ☎ 88 15 51
Santamaria, 10 ☎ 88 11 49
J.M. Barandiaran, 9 ☎ 88 88 36
Obradorea: Filipinas, z/g ☎ 88 12 65

ORDIZIA

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



OTEA

Mertzeria eta
Jostungaiak

Santa Maria, 1
BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

Debaldeko iragarkiak

Lana

□Zure edozein motatako inprenta lanak egingo ditugu GOIERRITARRAN. Dei 889612 telefonora lasai asko.

□Gestio Informatikako ikasketak egin dituen neska euskaldun bat harreragile, telefonista edo administrazioa edozein lanetan aritzeko prest dago. Inork beharko balu deitu 888418 telefonora, Aloñagatik galdetuz.

Salerosketak

□Teo-ren ipui mordo bat ditut salgai merke-merke. 801093ra dei, Begoz galdetu.

□Setter irlandar zakurkumeak jasotzen ditugu Ordizian. 881803 Juan Martin Goñi.

Etxebizitzak

□Neska edo mutil bat behar da pisua konpartitzeko Ordizian. Dei GOIERRITARRA: 889612.

□Pisu bat alokatu nahi dut Beasainen. Amoblatua. 1etatik 3etara dei: 881417.

□Baserri bat hartuko genuke ardiak jartzeko. Imanol, 766264.



Egutegiak



Kultur Ekintzak

Zegama, Martxoak 16: Goierri Cho-Oiu ikusentzunezkoa Kultur etxean 20,30etan. **25:** Euskararen eguna: goizean, kartelak, olerkiak, e.a. egin eta herrian erakusketa jartzea. 14,00etatik aurrera kantu, dantza eta antzerkiak Herri Eskolako haurren eskutik, herriko zineman. **26:** Kontzertua Azpeitiko Abesbatza baten kontzertu sakroa Eliza nagusian 20,00etan. **Igan-detako bideoemanaldiak:** **20:** "Eternamente joven"; **27:** "Yo, tu y mama". **Martxo eta apirilean argazki lehiaketa:** gaia: negua eta udaberria, sariak badira eta argazki bakoitzak bere izenburua behar du, Udaletxean utzi. Informatikako ikastaroak eta euskalduntzekoak martxan dira. **Pelota txapelketa:** Pala: larunbatetan 3 partidu, 15,00, 16,00 eta 17,00etan; igandetan beste 3, 11,00etan, 12,00etan eta ordubatan. Partidu eta jokalarien zerrendak nahiz sailkapenak frontoian daude jarrita.

Beasain, Martxoak 13: III Haurrentzako Aurreku lehiaketa, Loinazko S.M. Plazan 11etan Aurtzakaren eskutik. Musika Eskolako Orkestaren kontzertua Parrokian 20etan. **15:** Umeen-

tzat txotxongiloak egiteko tailerraren hasiera Ezkiaga auzoko Etxean 17,00etan. **16:** "Ginekologi arloko minbizia"ri buruzko hitzaldia Emakume Mastektomizatuen Elkarteko espezialistekin EPAn 17etan. Musika kontzertua Big Band eta Getxoko Jazz taldearekin Batzarre Aretoan 19,30etan. **17:** Kontzertua Durangoko Orkestra eta Abesbatzaren eskutik Parrokian 20,30etan. **18:** Mendiko gaiei buruzko diapositiba emanaldia Aizkorri M.E.-n 20,00etan. **19:** "Banpiro ehiztaria" filmaren proiektzioa Murumendi ikastetxean 16,30etan. **20:** "Nire ama sorgina" filma La Salle-S.J.-n 16,30etan. **26:** "Abereen etxaldea"ren proiektzioa "Murumendi"-n. **27:** "Amona Kulixkaren ipuinak" filma La Sallen 16,30etan. Carlos Cirizaren erakusketaren amaiera. Loinaz Abesbatzaren musika kontzertua Parrokian 20etan.

Ormaiztegiko Udala

Zergadun guztien ezagueran jartzen da martxoak 31 arte, borondatezko epean, ekingo diola Udalak 93 4. hiruhibeteari dagokion ura, zaborra eta estolderiaren zerga-bilketari. Bai eta 94 trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko udal zerga-bilketari.

Ordizia/Beasaingo Goardiazko botikak:

Martxoak 14: Azpilikueta; **15:** Jauregi; **16:** Laurnaga; **17:** Cuesta; **18:** Arriola; **19-20:** Azpilikueta; **21:** Urbizu; **22:** Atorrasagasti; **23:** Azpilikueta; **24:** Jauregi; **25:** Laurnaga.

Ordiziako Herri Antzokia:

Martxoak 11: "Cafe irlandes" (10,15); **12:** "Cafe irlandes" (7,30-10,15); **13:** "Con el arma a punto" (4,45); "Cafe irlandes" (7,30-10,15); **14:** "Cafe irlandes" (7,30); **18:** "Demolition man" (10,15); **19:** "Historias de la puta mili" (7,30-10,15); **20:** "Demolition man" (4,45-7,30-10,15); **21:** "Demolition man" (7,30)

Ordiziako Mendizaleak: martxoak 13: Txindoki-Uzkoiti-Amezketak; **20:** Bailadako ume-martxa.

Beasaingo Aitzgorri: martxoak 13: Bianditz-Artikutza; **20:** Ordiziako ume-martxa.

Idiazabal K.E.: martxoak 19-20: Rafting saioa eta Biddarrai-Iparla-Baigorri (Egun osoko ibilaldiak, irteerak 9,00 eta 15,00etan).

ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76



ALKARTASUNA LIZEOA KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

- * 2 urtetik 18 urterarte eskolarizazioa.
- * Garraio zerbitzua behar dutenentzako DOHAN.
- * Informatika, teknologia eta irratir emisora.
- * Hizkuntz laborategia: ingelera eta frantsesa.
- * Loragintza eta Astronomia.
- * Nazioarteko elkartrukaketak: Oxford eta Gales.

Ordiziako azoka



Argazkia: J. Marin

Bertako produktuak. Nobe-dadeak: baratxuri preskoen sorta 90 pzta. **Bitxikeria:** Grelloa, 90p.-sorta. **Abereak:** Arkuma (161 buru), 400 pzta.-k. Bertako gazta, arraultz, landare eta barazkietan apenas eman da aldaketarik aurreko asteetatik. **Landareak:** tipula, tipula gorria, porrua, 250 zientoa; azelga, letxua, udaberriko aza, 400. Barazkiak: atxikoria, azelga, borraja, espinaka, zainhoria, 50-75 sorta; aza, 60-100 bakoitza; azalora, 75-200; babarruna 700-900 k.; intxaurra 450-500 k.; letxua, 50-80 b. **Kanpoko produktuak:** banana, 200-

225; kiwia, 150-200; laranja 80-175; limoia, 150; mandarina, 200-250; sagarra, 100-150; udara, 175-225. Kanpoko barazkiak (bakoitza): azalora, 200-250; baba, 150-200; horburua, 300-325 d.; Ilarra, 400; leka, 600-700; patata, 40-45. Piper- gorria, 425-475; berdea, 350; tomatea, 200-250. Arrainak: amuarraia, 650. Antxoa, 730; antxoilu, 1.110; bixigua: 2.000; bakailaua, 1.100; errodabailoa, 1.700; itsasoilarra, 1.210; izokina, 1.300.

Gurutze Aldabe

Deialdiak


1. Elkartasun Sariak

Askapenak 94rako antolatutako marrazki eta erre-dakzio lehiaketaren oinarriak: Tolosaldean eta Goierriin BBB, UBI edo Lanbide Heziketan ikasten duen edonork har dezake parte; lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz izan beharko dute; pertsona berak ezin dezake lan bat besterik aurkeztu. Gaia: Euskal elkartasuna munduan zehar. Lanak makinaz idatzita, folio neurrian, 2 espaziotan, gutxienez 24 lerro eta lan bakoitzeko 3 kopia bidali, lehiaketan ohizko oinarrien arabera. Marrazki saila OHokoentzat da bakarrik eta gaia erredakzioarena bera da. Artesautza eta liburu sortak daude saritzat.

Milagrosa Ikastetxearen bideoa

Ordiziako Milagrosa Ikastetxeko guraso eta ikasle taldeak herriari bere nortasun eta eginkizunen

ESKOLA BIZIA



berri eskeintzeko asmoz, bideo bat kaleratu du aurtun. Entzun diren iritzien arabera arrakasta izugarria eduki du. Bideo hau 2 eta 3 urteko haurren gurasoei bidali zaie eta beste norbait interesaturik balego, Ikastetxe horretara joateko gonbitea luzatzen zaio. Helbidea: Egutera 7, tel.: 882216.

JM Barandiaran Eskola

Ataungo JMB Eskolako aurrematrikula epea irekita dago 14ra bitartean. Izene-mateak 16,00etatik 17,00etara, famili-liburua eraman behar da.

MURUMENDI ESKOLA PUBLIKOA

"Euskalduna, plurala, integritzailea eta kalitatezkoa"



ZER ESKEINTZEN DUGU?

- * Bi urteko haurren gela (Dohainik).
- * Irakaslego berezia.
- * Pedagogi berrikuntzarako proiektuak.
- * Erreforma oinarritutako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako metodologia.

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

- * Euskal Dantza-Musika.
- * Jaietan partaidetza.
- * Kultur Astea.
- * Irteera didaktikoak.
- * Gurasoentzako hitzaldiak.
- * Zine emanaldiak.

Mariaratz, 1-3 (Porteria Auzoa)
880025 BEASAIN

HAURRAK MATRIKULA ITZAZU EUSKARAZ D EREDUAN





**Marijo Galparsoro
(Egizan)**

“Emakumeon aurkako biolentziari, kaña”

Martxoak 8 Emakume langilearen eguna dela eta, GOIERRITARRA aldizkariak eskeinitako aukera aprobetxatuz, “Egizan”ek hautatu duen gaia kaleratu nahi dut: *biolentzia sexista* bere orokortasunean. Biolentzi sexista aipatzen dugunean askok paso egingo duzue, zuek ez zaretela bortxatzaileak eta ez duzuela inoiz emakume bat jo esango duzue. Baina biolentzia sexista ez da horretara bakarrik mugatzen, hori baino zabalagoa da. Biolentzia sexista emakumeok edozein esparrutan bizi dugun diskriminazio mota guztiak dira.

Edozein diskriminazio, emakumearentzat eraso da. Biolentziaren adierazle garbiena eraso denez, edozein diskriminazio sexista biolentzia sexista bilakatzen da. Gizarte honetan normalizat jotzen da langabetu gehienak emakumezkoak izatea, edo krisi garaietan emakumeak etxera bueltatzea. Ez al da hau emakumeok lan munduan

Biolentzia sexista

jasaten dugun biolentziaren ispilu garbi bat? Eta lanean ari bagara eraso eta akoso sexualak sufritu behar izaten ditugu gurekin lanean ari diren kideengandik. Duintasunez bizi nahi dugun emakumeok zenbat denboran jasan beharko dugu lan mundu honetako biolentzia?

Beste arlo batera pasatuz, *sexualitatea* aipatu nahi nuke. Emakumeok ez dugu geure sexualitatea bizitzeko aukerarik, objektu bezala ikusten gaituzte; beraz, emakumearen gorputzarekiko edozeinek eskubidea duela dirudi. Gaur egun gertatzen zaizkigun akoso eta bortxaketa gehienak honen isla dira. Eta zer gertatzen zaigu epaileengana jotzen dugunean? Salaketa egitera

ausartzen garenean aurrez demostratu beharra izaten dugu geure aldetik ez dela inolako motibaziorik egon. Ematen dituzten sententziak lotsagarriak erabat, eskasak eta formak gordezko besterik ez dira izaten.

Biolentzia mota gehiago aipatu daitezke, *abortoaren* gaiaren aurrean ere, zer dela eta instituzioek, medikuek eta gizarte guztiak zeresan gehiago dute emakumeak berak baino? Hemen ere emakumeon eskubideak ukatuak izaten zaizkigu. Eta horrela luze jarraituko genuke emakumeok sufritzen ditugun diskriminazioak aipatzen. Gizarte matxista honek errotik aldatu behar du. Martxoak 8ra itzuliz aukera polita dugu behingoz biolentzi sexista honi aurre egiten hasteko. Nola? Eguneroko bizitzan jasandakoak salatuz, sistema hau salatuz, kontzientzia hartuz emakumeok jasaten ditugunak ez direla arazo individualak, sozialak baizik. Hitz batez *kaña* ematen hasi behar dugu.



**ARANDIA
Garajea**
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g Iurre auzoa
Tfona: 88 09 47 OLABERRIA

KATTALIN

ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA
Sagardoa txotxetik

Antzizar Auzoa, 4 - “Biona” Etxea
(Polikiroldegi ondoan) ☎ 889252 BEASAIN

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariartz, 4
Tfona: 88 86 84 BEASAIN

**OIANGU
TABERNA**

Euskalerria z/g
Tfona: 88 30 03 Ordizia

albisu
KRISTALDEGIA

Ordiziako Industrialdea - Pabellón, 40
Tel. y Fax: 88 71 58
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Jose Mari Salinas
Auto elektrizitatea
Erreminta elektriko erabilgarriak
Konponketak

Enatarriaga etxea, Iurre auzoa
Tfona: 88 21 49 BEASAIN

Besteek esana

"Helduentzat hasi nintzen idazten. Nobela txar batekin hasi eta hobego batekin segi nuen. Urteen distantziatik begiratuta, gazteegi hasi nintzela konturatu naiz. Uste dut idazleak armairuan gorde behar dituela bizitzen eta idazten dituenak, gero idaztekotan. Kasua da idatzita-koak argitaratu egin zirela. (...) Uste dut idazle asko haur literaturarekin hasten badira, errentableagoa delako dela. Helduentzako literaturak ez du haurrenak bezainbat saltzen, oso ona ez bazara behintzat. Gustokoa nuelako eta estiloa leuntzeko hasi nintzen ni, partikularki, gaztetxoentzat idazten. Oso esker onekoa izan da niretzat hau eta orduz gero ez dut helduentzat idatzi, ipui bat salbu. Haurrentzat idazteak izan dezake agian helduenak ez duen magia eta grazia.

Patxi Zubizarreta ordiziar idazleak "DV Gaztea"n, 94-II-24.

Inkesta

Joaten al zara sagardotegietara?



Joxe Mª Gorostidi
Ormaiztegitarra, 25 urte
Langabetua

Aurten bitan izan naiz, baina oraindik ere gehiagotan joateko asmoa badut. Normalean Astigarraga aldera joaten naiz, sagardo hobia izaten dute, haundiagoak dira eta beraz, giro hobia izaten da. Lagun artean juerga egitera joateko gustatzen zaizkit sagardotegiak. Giro ona egoten da eta gainera ez da batere leku txarra ligatzeko.



Nerea Nuñez
Ormaiztegitarra, 17 urte
Ikaslea

Bai, batzutan joan naiz. In-guruko sagardotegiak bisitatu ditut aurten. Lagun arteko afariak egiteko leku egokiak iruditzen zaizkit. Ondo pasatzen dut sagardotegietan. Ez dut gehiegi ulertzen sagardoari buruz, baina batzuk garratzago eta beste batzuk gozoagoak izaten dira. Bertako jana ere egokia da sagardoa erateko.



Jesus Izagirre
Ormaiztegitarra, 41 urte
Langilea


Etxean galdetu behar! Bai, nahikotan joan naiz. Ataun, Tolosa eta igurukoetara joaten naiz, urrutira joaterik ez bait dago, bestela bueltakoan... Sagardotegietan giro ona egoten da, jana ere aproposa da eta gainera, horrelako ohiturak ez dira galdu behar. Sagardotaz ez dut ulertzen, baina nahiko edan eta ondo pasatzen dugu.

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN



**HERRI
MUSEOA**

BISITA ORDUAK

Larunbata: 11etatik, 14etara

16etatik, 18etara

Igandea: 11etatik, 14etara

Lanegunetan: 10,30etatik,
14,30etara, aurretik deituz.

☎ 80 17 24



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
Tfona: 88 40 57
ZALDIBIA


Esteban Lasa, 7
Tfona: 88 80 29
BEASAIN

Ba al dakizu...?

OT ximistorratz erradiaktiboak

50. eta 60. hamarkadetan eraikuntza publikoetan tximistorratz ugari jarri ziren. Lehengoekiko berrikuntza berezia zuten tximistorratz berriak: amerizio 241z (intensitate txikiko material erradiaktiboz) eginiko lamina mehez osatutako buruko bat zeukaten. Buruko horri esker, tximistak askoz errazago erakartzen omen zituzten. Tximistorratzok ez dute inoiz arazo erradiologiko larririk sortu; baina komenigarria zen halako tresnarik ez ugaritzea eta kontrolik gabe han-hemenka ez zabaltzea. Dekretu batek tximistorratz erradiaktibo gehiago jartzea galerazi zuen eta zeudenak ENRESAren esku uztea behartuak zeuden haien jabeak. 93.ean ENRESA delakoa arduratu zen horiek bildu eta birziklatzen.

Sasieta Mankomunitateak, Gipuzkoako Diputazioaren, eskualdeko Udalen eta "Eguzki" kolektiboaren laguntzaz, Goierri eta Urola Garaiko tximistorratz erradiaktiboen inbentarioa amaitu berria du. Guztira 13 he-



rritan banatutako 20 tximistorratz aurkitu dira (Goierri, Ataun, Beasain, Idiazabal, Itsasondo, Olaberria, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia eta Zerainen bana, Ordizian 4). Sasieta, behar diren esijentzia guztiak betez, tximistorratzak lehenbailehen erretiratzeko-tan dabil. Otsailaren 3. astean Zerainen zegoen bakarra erretiratu zen, zegoen tokitik libratu eta lurrera erori baitzen. Arriskuak uxatzeko, ingurua itxi eta ENRESAren bidez Zeraindik eramatea lortu zen. Zonaldean ez da inongo erradiaktibitate aztarnarik geratu. Ez dago kezkatzeko motiburik, beraz.

OGHE Elkargoa eta Goierri L.Eskola ikerketa bat egiten ari dira

Goierriko gazte eta ikasle ohiak lan-munduaren aurrean nola aurkitzen ote diren jakiteko. Herriz herri hasi dira 23 urtetik 30era arteko gazteei nolabaiteko inkestak eginez. 6.000 lagun inkestatuko dira guztira.

OB 3.az geroztik Ordiziako Nekazal Etxean goierriar baseritarrekin lan egiten zuen beteranena,

Mari Karmen Martinez euskaldunberria, Donostiara doa, Diputaziora. Bere ordezkari Mari Karmen Alberdi datorkigu Zumarragatik.

OG OIEKik, Bailarako Garapen Agentziak, "enpresen-inkubadora" bat ezartzeko aukerak ikertzen ditu. Ordiziako Industrialdea izan liteke bere kokagunea. "Goierri ez bada mogitzen, mundua (Goierri kanpoko) bera gabe eta seguruena bere kontra" mogituko dela dio Plan estrategikoak...

OS Sasieta Mankomunitateak esperimentazio pilotu bat jarri berri du martxan Ordiziako Maxi-Eroskirekin batera: automozio-olio erabiliak jasoko dira eta eskualdeko beste establezimenduetara ere zabalduko da hori.

KUKO Jatetxea

- Haragietan aukera handia
- Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu
(bataio, jaunartze, e. a.)

Berjaldegi Plaza, z/g ☎ 88 28 93
ORMAIZTEGI



MUJICA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA


ZIKLOS LAZKAO

Txirrinduak, ziklomotorrak eta gehigarriak

Elosegi, 48

☎ 88 86 34

LAZKAO



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

Tfona: 88 77 90
Mallotz- 25. Pab.

Faxa: 88 82 67
ORDIZIA

Aurrera baina poliki doa euskara. Eustatek biztanleria eta etxebizitzaren 91ko eroldaren arabera euskara eta hizkuntzari buruzko estatistikak aurkeztu berri ditu azkenean. Hona hemen Goierriko datuak, udalerriz udalerrri. Saldoa batzutan positiboa da, Ordizian eta Beasainen 11 puntuz gorakoa, Lazkao ezkorxeagoa, Ormaiztegin euskara goraka. 86koarekin (edo/eta 81koarekin) konparaketa egin eta zure herriko kontuak aterako dituzu, irakurle.

OLABERRIA. Hipermerkaturako sarbidean dagoen lurre auzoan autoen trafiko handitzea dela eta zenbait hobekuntza obra egin dira eta 8 koxka ere jarri dira abiadurak moteltearren.

LAZKAO. Datorren apirilak 3an beteko da Lazkao-Txikiren heriotzaren urtemuga. Iturgaitzaga eta Elo-segi kaleen bidegurutzean lorategi berri bat eskeiniko zaio, baina bertan oroitari bat altxatzea proposatu duenik ere bada, Joxemielekin ahaztu ez gaitzen.

Anastasio Albisu apaiz lazkaotarra antzerki idazle oparoa izan da. Azkoitiako apaiz izan da 50 urtetik gora, ia etenik gabe. Halere, bere zaletasunean ez du atzera jo eta obren zerrenda galanta du. Azkenaldian notizi izan da bere antzerkitxo bat taularatu eta bere lanen bilduma argitaratu delako.

"Alfa Laval" suediar enpresarekin kontratu bat sinatu du "Forjas de Lazcano" delakoak. 600 miloitik gorako salmenta ekarriko du akordio horrek. Numero gorriak ahaztea eta etorkizun oparoagoa esan nahi du horrek, beraz.

ATAUN. Martxoak 9an epaitu

Euskararen ezagutza Goierri (91ko eroldako datu berriak)

Udalerrria	Biztanleak	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
ALTZAGA	94	91	3	0
ARAMA	142	129	10	3
ATAUN	1.715	1.647	48	20
BEASAIN	12.063	6.170	1.929	3.964
EZKIO-ITSASO	535	493	22	20
GABIRIA	422	413	8	1
GAINTZA	122	122	0	0
IDIAZABAL	2.024	1.763	99	162
ITSASONDO	632	524	45	63
LAZKAO	4.938	2.724	710	1.504
LEGORRETA	1.491	1.094	165	232
MUTILOA	183	172	5	6
OLABERRIA	1.105	493	174	438
ORDIZIA	9.160	4.812	1.628	2.720
ORMAIZTEGI	1.212	978	102	132
SEGURA	1.269	1.123	78	68
ZALDIBIA	1.554	1.356	104	94
ZEGAMA	1.379	1.246	88	45
ZERAIN	220	215	3	2
GUZTIRA	40.260	25.565	5.221	9.474

zuten lehenbiziko aldiz ataundar intsumiso bat, Iñigo Goikoetxea hain zuzen, udal liburutegiko arduraduna. Fiskalak 18 hilabeteko kartzela zigorra eskatzen zuen berarentzat. Iñigoren jokabidea babestuz Ataungo Udaleko zinegotzi bat ere izan zen epaiketari. Ataungo Udalak, bere garaian, intsumisotzat jo zuen bere burua eta harrezkero ez dio laguntzarik ematen ejertzi-toari, intsumisoei bere elkartasuna adierazteaz gain.

Inguruarekin lotutako bi berri: badira zabortegeiak han eta hemen, herri guztian zehar. Gauza jakina zen Lizarrustiko erreka-bazterrak izkutuan zaborrak botatzeko erabili ohi direla; ba, oraingoa, Goimen-eko langileek ber-

tan aurkitu dituzten "alajak" hortik horrerainokoak izan omen dira: kamioi gurpilen bi kubieta, frigorifiko bat, motozerra bat, 3 bidoi haundi, 5 aulki, bi mahai, bi telebista, e.a.,... Bestalde, Udal-jabetzako mendietako ahuntzak tiroz hiltzeari ekin zaio, Diputazioko goarden laguntzaz eta aurreneko egunean 20 bat ahuntz hil zituzten, agi denez.

MUTILOA. Gaur egun, herri horretan arazo handia da telebistarena. Lierni gainean kokatzen den errepikagailuak ez du herri guztia errentzako behar adinako seinalerik ematen, "DV"ko kronista berria den Salome Olaetxearen esanetan.

JUANITA ARANBURU OINETAKOAK

Kale Nagusia, 40
☎ 88 01 27
BEASAIN



- Menuak "Self-service"an:825 pzta.
- Enpresentzako menu bereziak:1875 pzta.
- Asteburuetako menuak (enkarguz):.....2500 pzta.
- Afarien zozketak bezeroen artean.
- Bankete, ezkontza, jaunartze, despedida eta ospakizunetarako eskatu aurrekontuak.

Merkatal Zentrua

☎ 16 02 15

OLABERRIA

EUSKADIREN ALDE APOSTUA: 13.000 MILOI INBERTITU DITU ENPRESAK

J.J. Aroztegi: "Gauzak ilun daudela, baina argi ere badaude"

Azkenaldian etengabeko berriak iristen zaizkigu komunikabideetatik: isuna ezarri diola Europar Batzordeak, Arregi altzairutegiak erosketa opzioa eskaini diola... Olaberriko Aristraingo buru den Juan Jose Aroztegi ordiziarrak argitu dizkigu guztiak.

Ez da lehenengo aldia "Aceros Arregui" k interesa agertu duena Aristrainek bere enpresan partizipazio zuzena har dezan. Baina JMA barne-estruturazio lanetan zebilen "Holding" bihurtzeko eta erantzun zehatzik ez dute izan haiek. "Daukagun Industri-akordioa ona da biontzako. Baina erabaki inportanteak hartzeko asko pentsatu behar da", dio Aroztegi J.ak.

Iazko bukaeran, berriz, Aristrain zenaren semeak esan zuenez, "lehiako posizioa bultzatu nahi dugu europar eszenategi berrian. Eta dena, Europako profilen lehen hiru ekoizleetako bat izaten jarraitzeko asmoa dugulako, jabe-goe-estruktura aldatu gabe". Horrela ezeztatu zituen Jose Maria Aristrain de la Cruz-ek konpainia saltzeko interesa zuela zioten zenbait zurrumurru.



Ardanza eta Aristrainen atzean Aroztegi


Argazkia: Dioni

Lehia latza, desleiala

EB-k ezarri nahi dien isunaz mintzatu gara segidan. "Isunarena orain 3-4 urteko kontua da. Horrekin egon ginen 91. bukaera eta 92.aren hasieran ere. Europako merkatua oso gaizki dago, lehia desleiala da. Batzuk jasotzen dituzte laguntzak estatu ezberdinetatik eta nahiz eta galdu gutxi-asko edo kiebra-egoeran egon, hor jarraitzen dute. Guk ez dugu pezetarik ere jasotzen. Ez da sinisgarria. Oraingo salneurriak orain 2-3-4 urte baino bajuagoak dira eta".

Inbertsioak egiteko izerdi eta lan asko egin, eta adi egon beharra daukate.

"«Gerra» ebitatu beharra daukagu, ze gerran denak galtzen dute. Guk eskatzen duguna da CECA tratatua errespetatu dadila. Brusselako buroraziari gure eskubideak errespetatzeko eskatzen diegu. Lehia bera baldintza bere-tan". Korajea badutela aitortzen digu Juan Josek eta ez direla atzeratuko, errekurritu egingo dutela. Babesa izango dutelakoan daude (Eusko Gobernuarena badute behintzat), bestela izugarritako sarkasmoa izango litzateke.



ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:

AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

ITSASONDO

Gaurko egoera

Sekulako larritasunezko krisiaz inguraturik gaude. Egungo horizontea eta laister batekoa beltza da. Erabateko ekonomia-pesimismo giroa. "Lehendakariari esan niona: denek diote gauzak oso ilun daudela, baina argi izpiak ere badaudela. Lanak eman dizkigu, baina 13 mila miloiko inbertsioak hemen bertan egitea, bertako enpresa sustatzea ere bada", zuzendari orokorraren hitzetan.

Altzairugintza sektorean une larriak bizi dira, ondorioak katastrofikoak dira

Eredu berriaren oinarriak: lan gogorra, ondo egina, produktiboa, ez espekulatiboa...

Europear sektore guztientzat, pendiente dagoen errekonbertsio batekin eta errekonbertsio perspektibarik gabe, seguraski urte erdira edo amaiera bitarte. "Geure diagnostikoa da krisi multiplea bizi dugula, benetako iraultza industrial, Europa Berriaren berkonfigurazio politiko berriarekin bat datorrena. European nagusi diren kriterio ekonomikoaren antza gehiago izan behar dute kriterio politikoek", esaten digu eta laguntzak banatzeko irizpidez ari zaigula pentsatzen dugu. Efizientzia saritu beharko litzateke.

Europear Batasuna ezustean harapatu du krisi honek. Politika ekonomiko eta sindikalak emergentzia ekonomiko eta gizarteko alarmapean harapatu du Estatua ere. "Zezenari adarretatik heldu behar zaio, errealistak, estuak eta solidarioak izanez. Oraingo iraultza indus-

Hemen dago Holding-aren apostua

Aristrain Altzairugintza Taldeak konfigurazio juridiko berria hartu du berriki, Holding. Gorporazio gisa geratuz. 30.000 miloi pezetako berezko errekurtsioekin, Taldearen buru eta beste enpresen tituluen edukitzailea da. Gorporazioak Aristrain Olaberria Altzairugintza S.L., Aristrain Madrid Altzairugintza, S.L., Bergarako Labe Garaiak, S.A., Rico & Echeverria, S.A. (Zaragoza), Aristrain Nukleo Magnetikoak, S.A. (Bartzelona) eta estatuko eta nazioarteko zenbait merkatal zentruetan zuzenean parte hartzen du.

Espainiako perfil estrukturaletan 1. egilea da eta 3. Europear Batasunean. 1.000 eta gehiago langileko plantilarekin, 1,5 miloi tona ekoizten ditu urtean (2,0 miloi t/urteko ahalmena) eta 80.000 miloi pzt.a ko fakturazio inguruan dabil. Bere produktzioaren %55-60 eusten duten esportazio merkatuetan dezenteko presentzia du. Estatuko liderra da eta frantziar, alemaniar, ingeles, italiar eta portugaldar merkatuetan presentzia kualifikatua du. Europar esportatzaileetatik presentzia handiena du Txina, EE.BB eta Asiar Herriak.

JMA, S.A. Gorporazioaren, Industri Taldearen ezaugarriak: profil txiki, ertain eta pisatuak produzitzen ditu; angularrak eta profil lirainak; tuberia soldatuak, fleje

magnetikoak hotzean laminatuak, makina elektrikoentzat; semi-slabs, blooms-ak, e.a. Hauetako zenbaitetan estatuko, nazioarteko eta munduko ranking-ean 1., 3. eta 5. dira. 89.etik 94.era Olaberrian egin diren inbertsioak: 1.500 miloi pzt.a. ke-arazketan (garbiketetan); laminazioko ia-etengabeko tren berrian, 7.000 miloi pzt.a.; martxan dauden inbertsioak: azeriaren berrikuntzan eta aurtengorako aurrikusitako fusio labe berri eta fintzailea kuxaran, 2.000 miloi pzt.a. 10.500 miloi pzt.a. guztira beraz. Horrez gain, aipagarria da 89-94 epean egindako industri-inbertsioen %100a (13.000 miloi-pzt.a.) Euskadin kokatutako enpresetan egin zela. Goierrin bakarrik, besteak beste, Lazkaoko Urbasa Tailerrak, Beasaingo Indar-en, Ormaiztegiko Letag-en, Zumarragako Gelman-en, e.a.

Gizarte lana

Bukatzeo, aipatu enpresako aktibitate zuzenaz gain, Goierrin erroak dituen Gorporazioak eguneroko bertako bizitza dinamizatzen jarraitzen duela, "egin eta esan": kirola, atletismoa babesten du, "Gureak", ... eta uste dena baino gehiago. Hasieran, lehen eta orain Goierri Lanbide Eskola bultzatu ohi du eta Plan Estrategikoaren atzean dago.

trialak eta Europa berriak, prezederik gabeko altzairugintzaren deskolokazioa ekarriko du. Altzairugintzako eszedente estruktural dezentekoa eta lehialatza, desleala batzutan, dago Espainian eta European".

Ereduz aldatu behar da. "Errekanbioko modelua gogorra izango da. Efizientzia izan dadin, lan gogorrean, ondo

eginean, produktiboan eta ez espekulatiboan, sobrietatean, esfortzuan, produktibitate hobekuntzan, esportazioan, inbertsioan, soldaten moderazioan, lan merkatuaren erreforma estrukturaletan eta fiskalitatearen erreforman oinarritu behar da". Europear bataila irabaztekoan dabilta, superbizitzekotan.

Jon Mikel Arano

TXERTAKADI SAGARDOTEGIA

- Norberak haragia eman ezkerore ere prestatuko zaio
- Eguerdietan ere emango da aurrez abixatu ezkerore, 884798 tfnora Bixita gaitzazu!

Urtesabel Auzoa

ZALDIBIA

16 13 59



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

Bi egun Oianguren Ingurugiro Eskolan

Oianguren Ingurugiro Eskola Ordiziako Oianguren parkean kokatuta dago. Pertsonen, kulturaren eta inguru biofisikoaren arteko harremanak ulertzeko gaitasun eta jarrerak bultzatzea eta gure gizartean inguru hori babestearen beharraz jabetzea ditu, besteak beste, helburu. 1990eko maiatzean sortu zen bertako Udalaren ekimenez, baina urte bereko urria bitarte ez zen martxan jarri, ikasturtearekin batera baizik; Oianguren Baserrian dago harrez geroztik. Ingurugiro Eskolak 40 laguntzako bi logela eta beste bi lan-sala ditu, bertan material pedagogiko ezberdina. Heziketa programako ekintzak BBBko 3. maila, UBI edo IEEen ari diren ikasleei zuzendurik daude.

Bi egunetako egonaldiak egiteko etortzen ohi diren ikasleak, aurreneko egunean zehar Amundarain ibaira inguratzen dira, adibidez: inguru errural bateko erreka baten ezaugarriak ikus ditzakete, Zaldibiako arazkailua bisitatzen dute. Behin kanpo-lana eginda eta Oiangura bidean bueltan, diapositiba emanaldi baten bidez ikusten dute

ibai honen eboluzioa bere jaiotzatik Oriarekin bat egiten duen arte.

Era berean, ibai honengan CAFen zentrale hidroelektrikoak (eta ibaiaren erregulazio enbaltseak) dituzten inplikazio, funtzio eta eraginak analizatu eta esplikatzen zaizkie ikasleei. Arratsaldean laborategian lan egiten da Amundarain ibaiko ur-mostrei analisi kimikoak eginez. Gure ibaietako uren kalitatea, kutsadura eta hondakin-uren arazketa, uraren kontsumoa eta edateko ura tratatzeko modua ere aztergai izaten da. Gauean deskantsatu eta gero, bigarren egunean Oria ibaia bisitatzen da eta ibaien kanalizazioen gaia, hainbat desaguetatik zeharreko kutsadura eta ibaietako ekosistemetan izaten den ur-kutsaduraren eragina ikasten da. Bai eta ibai baten eutrofizazioa eta autodepurazioa. Etxetako



Ingurugiro eskolaren ekintzak (Arg: Ordiziako Urtekaria)

ur-soberakinen desague batetik mutrak hartzen dira, ikasleak kontura daitezen nola aldatzen dugun uraren kalitatea kontsumorako edota etxel beste beharretarako erabiltzerakoa. Ekintzak bukatzeko, ikasleek ingurugiro problematikarekin lotutako hiru mirudiak egiten dituzte.

Antonio Bea (Eko)

Arrastoan



Miren Urkiola ordiziarra

Azken ia 3 urteotan Oñati Irratian lan eginik, "erdi-txantxiku" bihurtu den "aza" dugu Miren ordiziarra. Oñatiko Irratia 91ean hasi zen emititzen eta lehenxegotik teknikoki guztiz montatua zegoen Udal irrati hau martxan jartzeko lanean hasia dugu. "Ez zen erraza izan, jendearen ohiturak aldatzea ez bait da inoiz xamurra izaten, baina egia

esan, galtzeko bat ere ez eta irabazteko besterik ez nuen, beraz, gogo handiz ekin nion, neu bakarrik bait nintzen irratiari aritzen zena". Hori bai, atzetik euskara eta kultura teknikari eta zinegotzien laguntza zuen. Oñati ezagutzea izan zen Mirenen lehen lana eta burua non zeukan ongi kokatzea: "Oraindik ere horretan dihardut sarritan, baina esan bezala erdi-txantxiku bihurtu den aza naiz... azken batean berdeak biak ere".

Irrati-mundua betidanik izan da berarentzat hurbiltasun haundiko mundua, bereziki Leioan kazetaritza ikasten hasi zenetik, kuartoko laguna irratizale amorratua baitzuen. Etxeko giroa izan zen gehien bat kazetaritzarantz bideratu zuena. Bera da etxeko "periodista" bakarra, baina ama egunkari-saltzailea izateak eragina izan zuela uste du. Oñatira iritsi aurretik, Bilboko irrati libre batean aritu zen; gero, ikasle garaiko praktikak

etorri ziren Miranda de Ebroko SER Miranda eta Euskadi Irratian eta, ETBn ordezkapen bat egin ondoren, RNE-k euskaraz egiten zuen albistegi batean aritu zen. Oñati Irratian, goizeroko 3 orduetako magazine moduko saioa egiten du, beti ere herria hizpide, abiapuntu eta helburu delarik. "Norbaitek gehiago eskatzen duen arren, ditugun medioak kontutan hartuz, oraingoz nahikoa eta gehiegi dela uste dut. Politika litzateke Goierriren ere era honetako saiorik egitea, gure bailarako errealitatea egunez egun bildu eta irratiz ematea... Zaila da, ez pentsa, baina gustora hartuko nukeen zerbait da".

Azken finean, Oñatin egon arren, Goierriarekin harreman sendoak ditu. Orain ordea, emigranteen moduan ikusten du Ordizia, festa eta jaiegunetan bakarrik etortzen baita. Hori dibertituagoa da, noski!

Ingurugiro sentsibilizazio kanpaina

"Idiazabal zikin, guztion min" lema-pean datorkigu kanpaina hau. Eskuar-tean duzun hau, ez dabuzoian hainbeste aldiz aurkitzen duzun paper horietako bat. Buzoia paperez beteta aurkitzea oso atsegina ez bada, ingurugiro arazoa ere hortxe dago. Buzoietako propaganda %25a ari da gehitzen urtero eta, ia erdia, ireki ere egin gabe bota ohi izan da. Paperaren arazoa nabarmena bada ere, kaleetan sortzen dugun zikin-keriarena ez da nolanahikoa. Eskuar-tean dugunak enbarazu egiten badigu, gehienetan kalezorua bihurtzen dugu zakarrontzi, konturatu ere egin gabe.

Egia esanda, basura sortzaile amorratuak gara. Gizarte kontsumista bat-tetan bizi gara eta horren ondorioak latzak dira. Zenbat eta gehiago kontsu-mitu, orduan eta gehiago dugu soberan. Udaleko Kultur Batzordeak orain hasi nahi duen egitasmoaren helburua da gu denok kontura araztea eskuartein du-gun arazo larri honetan, konturatu gabe sortzen dugun zaborraz, alegia. Ontzi, poto, estalki eta antzeko gauzak etxe-tan sortzen den zaborraren %40a osa-tzen dute; jakiak erosten gastatzen du-gunaren hamarreko bat jaki hori gorde-

ta dagoen ontzia ordaintzen joaten zai-gu, eta gero, botatzeko!; korreoan ja-sotzen dugunaren 1/4 propaganda iza-ten da eta %44a ez da ireki ere egiten. Zenbat arbola alferrik galduta!

Guzti hau dela eta egitarau bat jarri da martxan, Herri Eskolak martxoaren 7tik 14ra bitartean burutuko duena. Azterketa bat egin ondoren, "Izal"en azaltzen zaizkigun "gune zikinen ma-pa" osatuko da, besteak beste. Kultur Batzordeak eta Sasieta Mankomunita-teak antolatutako hitzaldiak: 15ean 20,30etan eta 16ean 20,00etan "Zabo-rrak eta kontsumoa"; 17an, 20,30etan eta 18an 20,00etan "Bilketa selektiboa eta erreziklaia".

Zirika Irratia

Dakizuenez, Zirika aurtan ere ari da lanean idiazabaldarroi larunbatero irratsaioak eskeiniz. Herrian sortzen diren txutxumutxu eta azken uneko be-riak sukalde txokotaraino iristea iza-ten da gure ametsa eta horretarako FM-ko 99.3az baliatzen gara. Aipamen berezia egiten diogu pilpilean dagoen azken berriari eta gai monografikoaren tartea berari eskeintzen saiatzen gara.

Halere, gure nahia entzuleen partaide-tza indartzea izan ohi da beti eta tele-fonoa isildu gabe txistuka aritzea maite dugu gehien. Horretarako "diska dedi-katuen" tartea eta lehiaketa ditugu, entzulea izaten delarik protagonista. Baina edozein helmuga igaro ondoren saria izaten da "bizipozik" handiena bai gaztetxo nahiz helduagoentzat eta Zirikan ere horrelaxe gertatzen da. Udalaren laguntzaz astero oparitzen ditugun kamixetak (eta orain praka motzak) sarituko ez bagenu behar ba-da idiazabalarrak aspertu egingo li-rateke. Hargatik gure herriko denda, taberna, jatetxe e.a.-etara ohar hau lu-zatu nahi genieke: asteroko sari horiez gain hilabeteko sari bereziak oparitze-ko zuen borondatea tentatzera gatoz. Beste urtetan bezala zuen laguntza oso mesedegarri suertatuko bailitzaiguke. Deitu Kultur Etxera, 187099ra, 18,30etatik aurrera edo Udaletxera goizez, 187100ra.

 Aloña Galarraga



Informazio eta erreserba:

OIANGUREN
UDAL INGURUGIRO ESKOLA

Tfonoak: 161424 eta 889106
20240 ORDIZIA
EKOS Ingurune Ikerketak
Lertxundi Gbur. Kalea, 6 - 4.A
Tfnoa./Fax 470875 eta 473708
20007 DONOSTIA

OIANGUREN
UDAL ATERPEA



ESTUDIOS AMBIENTALES S.L.

- * Inguru fisikoaren azterketa
- * Ingurune eraginaren ebaluaketa
- * Lurralde antolaketa
- * Natura lurraldeen babespena eta kudeaketa
- * Baliabideen kudeaketa
- * Ingurune heziketa
- * Ingurugiro aholkularitza
- * Lan zuzendaritza

Lertxundi Gbur. Kalea, 6-4.A 20007 DONOSTIA
Tfnoa: 470875 - 473708 Faxa: 470875

“Euskaraz bizi, bizi-bizi euskaraz!” Kanpaina argazkitan



Talo-ikastaroa (goian, ezkerrean): primerako artirinaz “bi axaleko” taloak, puztu-puztu egin eta jateko prest!

Pandero-ikastaroa (goian, eskubian): “neretzat-zuretzat; neretzat-zuretzat...” esan eta eskuaz adieraziz, hatzaparrak dantzan jarri.

Yoga-ikastaroa (erdian, ezkerrean): luzaketak, arnasketa, erlajazioa... ez al daukagu ba eskubiderik geure buruari denbora piska bat eskaintzeko?

Bertso-ikastaroa (erdian, eskubian): neurria, oina, errima, etena, koplak, zortziko txikia... bota puntua!

Kantu-zaharrak (aldamenean): lara-lara-lara-la... Horrek badu hitza eta paperetik bada ere hitzez-hitz kantatzea beti politago.

MILAGROSA IKASTETXEA

ESKOLA BIZIA

Milagrosa Ikastetxeak jakin arazi nahi du, izen emateko epea irekirik duela martxoak 16rarte.

Egutera, 7 ☎ 882216
ORDIZIA

Urdaneta

ESKOLA PUBLIKOA

“Eskola euskaldun, plural eta integratzailea”

ETOR ZAITEZ EZAGUTZERA!

BILERA: Martxoak 10, 7-etan
izango dugu.

Tfnoa: 88 27 80 ORDIZIA



Kultur-saltsa eta lanerako giroa

□Urtero bezala, Urdaneta eskolak bere kultur astea ospatu du Ihaute-rietan. Helburua, haurrek urtean zehar lantzen dituzten gaitasun eta adierazpenak kanporatzea litzateke. Kultur ekintza ugari izan zituzten bertan, pailazoak, jolasak, antzerkiak, hitzaldiak, musikalak eta kirolak. Umeek ezezik gurasoek ere ederki pasatu omen zuten.



Hitzaldi-mahai-inguru garrantzitsua Barrenakoa

□Otsailak 23an, Jakintza Ikastolak antolatuta

“Gaur egun, eleaniztasunaren alde apustu egiteko arrazoiak E.H.-an” gaia jorratu zuen mahai-inguru-hitzaldia eman zen Barrenan. Bertan, Josep Maria Artigal Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea eta E.H.-an eleaniztasunaren (zenbait hizkuntza aldiberean irakastearren) esperientzia aurrera daramaten Ikastolen arduraduna izan zen. Jaurlaritzako HPINko Mari Karmen Garmendia eta Imanol Agote ere aritu ziren. Kontutan izanik Jakintzak 3 urteko esperientzia duela eleaniztasunaren inguruan, hizketaldi interesgarria suertatu zen. Guraso eta irakasle asko bertan, 2 ordu t’erditan. Ikastolako zuzendaria den Manu Olanoren esanetan, “J.M. Artigalen aportazioak hizkuntzalartzan oso interesgarriak eta mundu osoan puntakoak dira”. M.K. Garmendiak eman zion hasiera, eleaniztasunaren gaia kokatu zuen histori-koki: aspaldiko gaia da eta ez dira gaurkoak kezak. Aitzol, Altzoko Aita Migel aipatu eta bukatzeko esan zuen Euskararen Aholku Batzordea erabat bat datorrela eleaniztasunaren apustuekin. Agotek eleaniztasunaren baloreak goraipatu zituen. Hitzaldia gaztelania, euskara eta ingeleraren jiran ibili zen. Olanok dioenez, “Artigalek hizkuntzen planteamendu orokorra egiten du, ezinbesteko ikusten du euskarari lehentasu-

na ematea. 2. hizkuntza erdara izan behar du hemen eta ingelera 4 urtetik hasita sartuko luke, 4 saiotox ordu erdikoak astean. Uste dut bere lema nagusia dela, hizkuntza bat ez dela lehenik ikasi eta gero erabili behar; erabiliz ikasten dela baizik. Hizkuntzak nola irakatsi, hor dago kakoa. Zenbat eta lehenago hasi hizkuntzak ikasten orduan eta azkarrago ikasiko du umeak eta zenbait hizkuntza jakinez gero errazagoa da beste bat ikas-tea”. 3. hizkuntzarekin hastea euskararentzat mesedegarri dela zioen. Publikoak galdera asko egin zituen.

□34 urte betetzen dituen “Laguntasuna” Errondailak bere momentu onenetan 30 bat kide izan zituen arren, bajuenak bizi izan zituen duela urte pare bat, taldekide batzuk utzi eta haien ordezkorik ez zelako aurkitu. Gaur egun ordea, susperraldi bat ezagutu du “Laguntasuna”k eta partaidetza bikoiztea lortu du iazko udatik hona eta 3 abots ditu egun. Halere, kopuru ideala 20 lagunekoa izango litzateke, hiruna kitarra eta bandurriaz lagundurik, beraien esanetan.

□Ordiziako Estanko Etxeak irudi ikusgarriak zituen (eta badirudi oraindik badituela) bere ormetan. Kale Nagusiko etxea ondare historiko-arkitektoniko gisa kontsideratua dago, badirudi XVII mendekoa dela

bere jatorria eta Gipuzkoako bakarretakoa da aurrekaldeko irudiei dagokionez. Pintura hauek nahiko janda daude eta, berritzeko asmotan baldin badira ere, lanak atzeratuak izan dira oraingoz.

□Merkatal sektoreko hainbat industriarik elkarre bat martxan jartzeko interesa erakutsi dute. Aidanez, Ordiziak baditu 56 taberna, 66 denda, eta bestelako 40 bat saltoki inguru. Egin berri dituzten bileretan

kezkak eta biltzeko gogoak agertu dituzte lehia eta esijentzia berrien aurrean. Bilatu nahi den helburua, aipatu arloan herriak garai batean izan zuen prestigio eta erakargarritasuna berreskuratzea litzateke. Ideia gorpuztekotan junta bat sortu da. Besteak beste, bertan dira Antxon Sanz, Martin Munduate, Mertxe Fernandez, Alberto Ajuria, Ana Carrera, Fermin Sukia, Juan Urbano, Elena Garmendia, Raquel Bravo eta Jose Ramon Munduate.

□Ordiziako Udalak ontzat eman du lanbide hastapen tailerretarako Apellaniz-eko zenbait lokal uztea Goierriko Herrien Ekintzaren esku. Tailer hauek garai batean zeuden arte eta ofizioeko eskolen antzekoak izango lirateke eta derrigorrezko hezkuntzarik ez duten Goierriko gazteei alternatiba bat eskeiniko liekete. Aipagarria da GHEren eskaerari Ordiziak bakarrik erantzun diola. 10 urtetarako utzi dira lokalok, dohai-nik. Zuzendaritza Maite Erauskin beasaindarrak eramango du eta, ikasketak amaitzean, ikasleek bilarako lantegietan praktikak burutzea izango du helburu programak.

Aitor Calvillo
J.M.A.

Udalerriko armarriaren bila

1927. urtean J.A. Lizarraldeko "Aranzazu" aldizkarian bere jaioterriko Udaletxean dagoen armarriaren kontrako iritzia eman zuenetik, zaldibitar batek baino gehiagok jarraitu dio hariari eta egokia ote den aztertzen saiatu. Hori dela eta, zenbait ikertzaile ospetsuk horri buruz zer ote dion jakin nahi izan zuen Udalak. Hala, beste hainbat ekintzaren artean, armari berria eraikitzeke proposamen lehiaketa antolatu zuen. Besteak beste, "Etnogintza"ren txostena dugu esku artean. Estudio aski luze eta zabala bada ere, zatirik printzipalenari lotuko gatzazkio gu, proposamen atalari. Konkretuki, bi proposamen agertzen dira, nahiz eta "Zaldibia" leinuaren armaria hartzea 3. proposamentzat jo daitekeen. Iñigo de Aranzadik aurkezturiko proposamena da bata. Honen arabera, honela osatuko litzateke: goialdean ezkerretara, San Migel; goialdean eskuinetara, Champaingo monastegia; behe partean, ezkerretara, Txindoki edo Nañarri mendia; behe partean, eskuinetara, gainaldetik hasirik hurrenez hurren: zaldia, zubia eta erreka; eta armariaren bueltan "Zaldiz eta oinez" inskripzioa. 2. proposamena honela hornitua dator: garaldean, Txindoki; erdian, 7 haritz arbola, Zaldibiko auzoak 7 omen direlako, eta behe partean ibaia. Udaletxeak du az-

ken hitza, baina oraindik ez du eman; alderantziz baizik, ez zaio iruditzen oraindik nahikoa informazio bildu duenik eta Tolosa eta Valladolideko artxiboak arakatzeko erabakia hartu du.



Egonaldiak familia euskaldunetan

Urtero bezala, Euskal Gobernuak Kultura Sailak "Egonaldiak familia euskaldunetan" programari ekin dio oraingoan ere. Jende asko egoten da, urtea euskaltegian eman ondoren, uda partean euskal giroan biziko litzatekeenean. Baina, horretarako, jendea hartzeko prest leudekeen familia euskaldunak beharko lirateke. Hartzen duen ikasle bakoitzeko 60.000 pezeta ordainduko zaizkio familiari. Uztaila, abuztua eta irailean izan behar du. Ikaslea, neska ala mutila izan, hartu behar duenak aukera dezake. Programa

honetan herriko familiaren batek bere ahal duentxoa eskaini nahi baldin badu, martxoaren 18a bitarteko epea dauka eskaera orria betetzeko. Horretarako, jo ezazue Kultura Etxera eta bertako arduradunak, Lurdesek, emango dizkizue nahi dituzuen argibide guztiak. 888090 telefonora ere dei zenezakete.

Zaharra eta Pototoren omenez

Martxoaren 12an, larunbata, Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatutarik, honako ekintza hauek izango dira Zaharra eta Pototoren omenez: 18,30etan, poteoa trititixarekin; 19,30etan, Kultura Etxe aurrean: txalapartariak, dantzariak, eta Jon Sarasua eta Sorozabalen bertso saioa, preso ohi bat. Gaueko 9 etan, herri afaria Zubiburu elkarteak, Sarasua eta Sorozabal bertsolariekin eta trikitilarekin.

Sasieta Mankomunitatea informatzen

Sasietak, orain arte bezala zaborra guztiak batera bildu gabe, bilketa selektiboari ekin nahi dio. Hori nola egin eta bizilagunek nola jokatu behar duten jakin dezaten, hitzaldi batzuk emanak ditu Zaldibian. Probetxugarri gerta da kizkigula, gure kale bazterrek eskertuko dute eta.

Rufino Iraola



HARRIA GRESAK

BERRIKUNTZA OSOAK

Tfnoa: 88 54 66
BEASAIN

*Eskatu
aurrekontuak
konpromezurik
gabe*



**LARDIZABAL
HERRI ESKOLA
ZALDIBIA**

Aurre-matrikula epea irekita dago martxoak 14 bitarte.

D eredua.

88 42 51



NAUTIKO Jatetxea

eta

IZASKUN Pentsio-Ostatua

ITSASONDO

Tfnoa: 88 00 12

GOZOGINTZA

PAGOSA

OKINDEGIA

Tfnoa: 885500

ORDIZIA

Nekazal-turismoa, Aldarretazpikoan

Azken aldian ugaritzen ari den turismo mota baten nahiak asetzeko prest da dagoeneko, Aldarretazpikoa baserria. Maitere Lardizabal etxeko andreak esan digunez, familiak berak aurkeztu zuen zerbitzu horretarako eskeintza. Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri eta baldintza guztiak betetzen dituen eraikuntza pronto duten honetan, lehenengo bisitarien zai dira honez gero.

Aldarretazpikoa baserrian, lau logela, bi komun eta subajudun egongela berri bat egin dituzte, lehendik zegoen terrazako zati bat estali eta berritzearekin batera. Logelak, ohe haundi bakarrekokoak dira bi eta bina ohekoak beste biak. Guztira beraz, zortzi lagun ere egon daitezke aldi berean. Dena egurrezko zoru eta haltzariz egoteaz gain, gaur egungo berrikuntzez hornitutako gela eta komun erakargarriak, txoko polit bat lortu dute etxeok.

Bertan apopilo egongo denak, otor-



du guztiak hantxe egiteko aukera du. Inguruneari buruz berriz, zer esanik ez; Ataungo tokirik dotoreenetakoan dago Aldarretazpikoa baserria, San Martin-go Otadizearra auzunean eta bertaratzten direnei, aitzakiren bat aurkitzen kostatu behar zaie alajaina.

Hara hemen bada, "hotela" deitzen den izar askodun askoren enbidiarik gabe sortutako zerbitzu berria. Luza-rorako izan dadila.

Joxe Begiristain

BEASAIN

Lanak ematen ari dira herriko obrak

□ Herriko populazioak beherakada txiki bat izan duela aipatuz hasiko dugu kronika hau. 12.417 biztanle gara orain herrian.

□ Bertako Gipuzkoa plaza lehenagoko Eskisabel aroztegien solairura zabalduko da eta plaza berriaz gain 50 etxebizitza eraikiko direla aurreikusten da. Goierriko Gurutze Gorria Osasun Zentruan joango da eta Udalaren kargu joango diren obrak hasi dira horretarako. Orain dela gutxi N-1an zegoen boluntarioen postua bota egin zen errepide bikoizketaren obrak zirela medio. Bikoizketa honek Oria ibaiaren ubidea aldatzea eskatu du. Bestalde, dagoeneko hasiak daude Antzizargo sahiesbi-dearen obrak eta bertara inguratuz gero nabari da. Obra-lanekin amaitzeko San Martin Parrokikoak burutzeaz daudela esan behar da.

□ Azkenaldian zer esanik ematen jarraitzen du CAF lantegiak. Hong Kong

23 trenetarako hornitzeko 10.000 miloita-ko kontratua sinatu zaharra ez badu ere, oraintsu Suiza, Mexiko, Hungaria eta Argentinarako kontratuak ditu. Amsterdam hiriko metrorako trenak egingo ditu orain, berriz, 11.200 miloita-ko lana lortu du. Fabrika Haundian produzitzen duten lanaren erdia nazioartetarako izaten da. Benetan datu interesgarria da hau, kontuan harturik munduko hainbat lantegi ezberdinekin lehiatu beharrean aurkitzen direla. Ez du ez estimazio txarra. Horren agerpide gisa, "Dinero" aldizkariak, Hispano bankuarekin batera eman ohi duen "Euskadiko 2.000.eko enpresarien saria" CAF-i eman berri diote. Euskal Herri-tik kanpora ere protagonismo nabarmena erakusten du, beraz, CAF-ek. Bukatzeko esan, 1.600 miloita-ko irabaziak izan zituela iaz Beasaingo lantegiak.

□ Bertako Odol-emaileen ordezkari-

tzak zilarrezko eztaiak ospatuko ditu aurtan. Orain 25 urte sortu zenean, inork ez zuen usteko orain iritsi den lekura inoiz iritsi zitekeenik. Iaz, 1.170 odol-erauzketa egin ziren Beasainen eta, Gipuzkoako odol-emaileen zerrendari dagokionean, 3. postuan dago. Hala ere, 18tik 25 urte bitarteko gazteak omen dira odol-emaileen elkarte honetan parte gutxien hartzen dutenak, etorkizuna nolabait ere beren eskuetan dagoenean.

□ Udala eta herriko kultur talde desberdinen artean sinatutako hitzarmenaren bidez, zenbait ikastaro atera dira aurrera. Helduei zuzenduriko aurreku ikastaroa hasia dago honez gero eta Aurtzaka Dantza-taldea da irakaskuntzaren ardura duena.

Nekane Altuna

Herria eta euskara

Oso herri txikia dugu Ezkio-Itsaso; 550-600 biztanle ozta- ozta. Udalerrria bost auzune koxkorrez osatua dago (*); bostok bata bestetik urruti samar koka-tuak, gainera. Ezaugarri honek nola-baiteko berezitasuna damaio herri ho-ni. **Itsaso eta Ezkio** dira auzo ttikienak: erabat nekazal girokoak, inguruko he-rri handietatik (**Zumarraga, Urretxu nahiz Beasain, Ordiziatik**) nahiko al-denduak, baztertuak, hirigunerik ga-beak, baserri bakarti barreiatuez osa-tuak eta, biztanlegoaren adinari dago-kionez, beste auzoak baino "zaharra-goak"; oso ume, gaztetxo eta gazte gu-txi bizi da auzo biotan. Ez dute inmi-graziorik jaso, industri lantegirik ere ez dago eta.

Honela, erdararen eragina (gaztele-rarena, noski) besteetan baino gutxiago nabari da aipatu bi auzootan zeinnahi

gizarte- esparrutan. Bertan, sendi-bar-neko harremanetan, auzotarren beraien artean nahiz kanpotar euskaldunekiko erlazio orotan euskara da mintzaera nagusia, bakarra ez esateko. **Alegia eta Santa-Lutzi (Anduaga)**, aldiz, askoz ere industrializatuagoak dira (Santa-Lutzin nahiko industrigune garrantzi-tsu kokatzen da); auzo-herri handieta-tik hurbilago aurkitzen dira, hirigune bilduagoa dute, biztanlego handixea-go eta gazteagoa.

Auzo hauetan erdararen eragina na-bariagoa da, famili giroan, auzo-harre-manetan, kanpotarrekikoetan eta, ba-tez ere, zenbait alor eta leku konkre-tu-konkretutan: lantokietan eta lan-mundu osoan, tabernetan... Inmigrazio minimo bat ere badago. Aspaldi samar etorritakoak, gutxi-asko, integratu dira herrian, euskara ikasi ere bai; beste ba-

tzuk, ordea, beren bizimodu osoa erda-ra hutsean egiten jarraitzen dute, eus-kararekiko atxekimendu zipitzik ere agertzeke.

(*)**Oharra:** Aratz/Matxinbenta auzunearen zatitxo bat, Udal-Admi-nistrazioari dagokionez, Ezkio-Itsaso da. Baina, geografikoki, Urolaldean kokatzen da eta, horregatik, auzo ho-nen harreman eta bizimodu osoa Az-peitia aldera begira burutzen da, Goie-rrirekin ia inolako loturarik ez duelarik. (...)Dena den, inolako duda-mudarik gabe, esan dezakegu Matxinbenta bes-te lau auzoak baino askoz ere "euskal-dunagoa" dela: bizitzako alor guztietan euskarak agintzen du, erdarak ez du eraginik.

Antton Idiakezen sarrera, "Hiz-kuntz Ordezkapenaren Nondik-Norakoak Goierriin" idazlanetik

OLABERRIA

Denbora libreaz gozatzeko aukerak

Olaberriako Udalak eskiatzera joa-teko aukera luzatu digu. Lekua, For-migal izango da, eta egunak berriz, martxoaren 12 eta 13. Bestalde, apiri-lak 27rarte masaje ikastaro bat dago martxan, astelehen eta asteazkenez, 18etatik 20etara. Marrazki eta pintura ikastaroa ere ihardunean da eta apiri-laren 12tik 28ra, berriz, astearte eta os-tegunetan, sukaldaritza jorratu ahal izango duzue, 17etatik 19etara. Izene-mate epea apirilaren 8an amaitzen da.


Maiatzaren 16tik 27ra eta astelehe-netik ostiralera, dantza ikastaroa egongo da, saltsa eta merengea iraka-

tsiko direlarik. Ordute-gia, 19,30etatik 21,30etara izango da eta izenemateko epea maiat-zak 11 izango da. Este-tika eta edergintza maiatzaren 5etik ekainak 2rarte izango da, oste-gunetan. Bertan, maki-laia, elikaduraren gaia, ileapainketa, e.a. ikasi ahal izango di-tuzue. 17etatik 19etara eta izen emate epea apirilak 29a da. Azkenik, gimna-sia ikastaro bat egongo da, maiatza, ekaina eta uztaillean zehar. Egunak, as-telehena, asteazkena eta ostirala izango



dira, 4etatik 5etara. Izenemate epea apirilaren 5ean bukatzen da. Matriku-latzeko eta informazio gehiagotarako deitu telefono honetara: 881434.

 Nagore Goiburu



Siboney

EDERGINTZA

Ana Kristina Olano

Senpere Zentru Komertziala

☎ 88 15 50 BEASAIN

Arkupe Tapizteria

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoak

Mantak - Maindireak - Mahai ohiolak

Toailak - Gortinak eta osagarriak

Manuel Zeberio

J.M. Barandiaran Plaza

☎ 88 00 84 ORDIZIA



TXITXARRO ARDOAK

Errioxatan aukera

Warsteiner garagardo-banatzaila

Jose Luis Gonzalez

Sanperio z/g

☎ 16 16 63 ORDIZIA

Bolatarako zaletasuna eta bolatokiak

Ez da gaur goizekoa, alajaina, gabiritarrok bolatarako izan dugun edo dugun zaletasuna, eta azken aste hauetan hainbeste bola-lehiaketa jokatzeko ari direnez inguru honetan, egoki deritzot gaiaren inguruan historia pixka bat egiteari, nolabait, goierritarrek kirol honi buruzko zenbait xehetasunen berri izan dezaten. Aspaldiko ohitura dugu gabiritarrok bolatarakoa eta beharbada zaletasunik haundiena gerra aurreko eta ondorengo urte haietakoa izango da. Baserri askoren ondoan nahiz herrian bolatokiak ziren garai hartan eta igandeetan inguruko baserritarrak bolatoki haien inguruan elkartzen ziren lagunarte ederrean. Garai honetan ohitura haundia zegoen trabe-sean dirua jokatzeko, eta jokoa gutxi gora-behera honetan zetzan: bola bakoitza botatzean hainbat birla baietz bota eta ezetz bota, honela egiten ziren apustuak, diru askorik ez, jakina, eta askotan basoerdi bat edo beste.

Dena dela, 60ko hamarkada inguruan zaletasun hori gainbehera hasiko



Noareko "Pittirri", lehengo eta oraingo bolarien arteko lokarria.

zaigu eta poliki-poliki meza ondorenean Soziedade zaharraren aurrean egiten ziren bola-saio gogoangarri haiek itzaltzen joango zaizkigu kandelak umelak bailiran. Baina, nere iritzi apalez, bolatarako zaletasun hori pixkanaka berreskuratzen ari gara eta honetan bada gertaera aipagarri bat eragin

dexentea izango duena, hain zuzen ere, "Korta" jatetxe aurrean orain dela bospasei urte eraiki zen bolatokia. Ordura arte, bolatan aritzen zirenak 50-60 urte inguruko jendea baldin bazen (Segundo, Antxikiko Jose, Pittirri, Mandiolako Agapito e.a.), bolatoki hau ireki ondoren, jende gazteagoa ere hasiko da eguneroko kafetxoaren inguruan zenbait saio egiten eta honetaz gainera, bolatoki hori Gipuzkoako bola-federazioan sarturik dagoenez, dexente saio antolatu dira azken urte hauetan herri-tarrok ere esku hartu dugularik.

Azkenik, ez nuke aipatu gabe utzi nahi orain dela urtebete eskas herrian bertan frontoiaren atzean egin den bolatoki estalia. Honekin Gabirian 4 bolatoki dauzkagu: 2 estali eta 2 ireki. Ikus dezakezuenetz, bolatoki faltarik ez dugu eta aurrerantzean saiatu egin beharko dugu gure arbasoen kirol honi bultzadatzoren bat ematen.

 Gabino Murua

SEGURA

1.go Elorri Idazlan Sariketa

Otsailak 21ean burutu zen Kultur Etxean 1. Elorri Idazlan sari-banaketak. Irabazleak A sailean (14 urtetik gora, 8 lan aurkeztuak): Garazi Goia, "Bakardadearen ispilu" lanarekin; Larraitz Intxausti "Urruntzea" rekin; aipamen berezia Eñaut Telleriari. B sailean (OHO 7.-8. mailak, 9 lan aurkeztuak): Naroa Izagirre "Su ondoko oroitzapenak"-kin eta Nerea Imaz "Sorginik bai ote?"-rekin. D sailean (OHOk 5.-6. mailak, 10 lan aurkeztuak), Alaitz Makazaga zeraindarra "Amonaren ipuina"-rekin eta Mikel Imaz "Inoiz ahaztuko ez dudana ametsa" rekin. Antolatzaileez gain, epaimahaikoak ere izan ziren sari-banaketaren ekitaldian: Herri eskolako irakasle den Josetxo Udalde, Iñaki Murua irakasle eta bertsolari gabiriarra eta Joxantonio Ormazabal idazle ze-

gamarra. Ekitaldia oso jantzia gertatu zen azken honek eman zituen azalpenen bidez. Ipuinen idazle askori aholkuak eman eta lan bakoitzaz berezitasun ugari aipatu zituen. Aurrerantz ere animoak itzal ez daitezten.

Goierrri-Cho-oiu

93ko udan "Goierrri-Cho-oiu" espedizioan parte hartu zuten Koke Lasa ormaiztegiarrak eta Segurako Rafa Berasategik diapositiba emanaldi batzuk prestatu dituzte: Cho-oiu mendira eginiko espedizioari buruzkoak; Andeak, Ekuador-Boliviari buruzkoak; Nepal eta Tibeteko irudiak biltzen dituenak. Kutxaren babesa lortu dute lan hauek herriz herri nonahi eskeini ahal izateko. Dagoeneko bi lehenengo lanen azalpena eginenez hasiak dituzte emanaldiak Laz-

kaon eta hemendik gutxira 3.arekin ere hastekoak dira:

"Elorri" berriro martxan

Otsailak 20an ireki zituen atea berriz ere Elorri Elkarteak. Aurreko lokala zegoeneko etxea sute baten ondorioz erabat suntsitua geratu zen. Lokal probisional moduan Elorri tabernaren inguruan ireki da berria.

Eskulanak

Zein eskulan nahiko lukeen jendeak, ordutegia e.a. zehazteko bilera egin zen otsailaren 15ean. Aurreko urteko esperientzia oso positibotzat jo daiteke, urtean zehar egindako lanen erakusketa San Juan jaietan denok ikusi ahal izan zutelarik.

 Joseba Telleria

Bi lerrotan

Ordiziako saskibaloiko lehen taldea, maila bikainean dabil. Otsailaren 27an, beti Gipuzkoako talde onena izan den Askatuak menperatu zuen (71-76), Donostian bertan. Garaipen horren ondoren bigarren mailako 5. tokian jarri bazen ere, hurrengo jardunaldian Getxoren aurka 88-90 galdu ondoren, 8. postuan dago.

Besaingo saskibaloilariak ere ez dute atzera geratzeko asmorik. BKL-ko talde kadetea bigarren mailako txapeldun aldarrikatu zen, Arrasate «B»ri 60-64 irabazi ondoren.

Legorretako futbito txapelketaren finalerdietarako txartelak banatzear daude, azken jardunaldia gertzen denean. «A» taldean «Jan da Lo» sailkaturik dago eta beste posturako «Txitxizotz» eta «Izkilimili Bikutz»en arteko lehia izango da hurrengo aste-bukaeran. «B» taldean berriz, «Jan da Lo Z» sailkatu da finalerdietarako eta beste postua «Baldarrak B» eta «Izkilimili Itzala»ren artean erabakiko da.

Zegamako Aitzkorri Futbol Taldearen partiduak: infantilak: **martxoak 13:** Idiazabal-Aitzkorri; **20:** Aitzkorri-Bergara; **27:** Aretxabaleta-Aitzkorri. Kadeteak ligako bigarren fasera zozketaren zai daude.

Martxoaren bukaera aldera abiatuko da Marron atundarra, kontinente guztiak kontuan hartuta, munduko zazpi mendi altuenen gailurrera igotzeko helburuari berriro ekitera. Maiatzaren 16an Everest gailurra egin

ondoren, sei altuenak diren mendi hauek igotzekotan da: Antartidako Vinson, Papua Ginea Berriko Kartemz, Georgiako Elbruz, Afrikako Kilimanjaro, Hego Amerikako Aconcagua eta Ipar Amerikako McKinley.

Iker Sukia atundarrak berriro gauditu du bere Espainiako errekorra, kadete mailako pisu jaurtiketan. Gipuzkoako Atletismo Txapelketan 18,24 metrotara jaurtiki zuen 5 kiloko pisua.

Amaia Andres beasaindarra Espainiako txapeldun izan da 800 metro pista estalian, 2.05.30 denborarekin. Sevillan lortu zuen txapela bere 5.a da «indoor»ean, orainarte estatu mailan inork lortu ez zuena. Halere, duen lunbagiak lanak ematen dizkio Amaiari, hainbat egun entrenatu gabe egonda joan baizen Sevilla aldera.

Ordiziako rugby taldeari lehen mailan jokatzeko behar den mentalitatea falta izan zaio, batez ere gazteen aldetik. Teknika oneko jokalariek badituzte ere karakterra falta zaiela adierazi zuen Axio Arañak DVn eginiko elkarrizketa batean. Horretan zerikus handia izan du gazteen maila ikusita zaharrenek taldea uzteak, jarraitu ezkerro, gazteek postuarengatik borrokatu beharko bait zuten. Titularitatea erregegi izan dute eta edozein aitzaki zuten ona kanpoko neurketetatik libratzeko. Honelako adierazpen gogorrek egin ondoren Ordiziako rugby zelaia kirolerako gutxienezko baldintzarik ez duela betetzen adierazi zuen Axiok.



Xabier Aldanondo Onceko txirrindulariak badu jadanik «peña» bat. Talde hau, Goierriatik kanpo sortu da, Billabonan hain zuzen ere. Hauen lehen lana mahai inguru bat antolatzea izan zen, bertan Aldanondo bera, Neil Stephens, Diaz Otazu eta Xabier Usabiagak hartu zuten parte.

Aitor Garmendia itsasondotarrak Lisboako A Capital saria irabazi zuen otsailaren 20an. Profesional mailan bere 5. denboraldia duen honetan lortu du, etapako lasterketa batetan, bere lehen garaipena. Aurretik beste lasterketa bat zuen irabazia Aitorrek, Laudioko Sari Nagusia 90. urtean.

Javier Palacin, goierriko hirugarren txirrindulari profesionala, ari da maila berrian lehen urratsak ematen; Mallorca, Andalucia eta Valenciako itzulietan parte hartu du beasainarrak. Haseran maila aldaketa nabaritu bazuen ere, piskanaka ari da ohitzen, batez ere neguan eginiko lanari esker.

Kiska
PUB

Santa Maria

ORDIZIA

GEMA
OINETAKOAK

Nafarroa Etorbidea, 7

☎ 88 94 45

BEASAIN

FS
foto sistema

Nahi duzun argazkia inprimatuko dizugu zure kamixetan

Domingo Unanue Plaza

☎ 88 93 25

ORDIZIA

Iztueta zaldibitarra (1767-1845)

GOIERRITARRA aldizkariaren 35. zenbakian ekin genion Goierriko idazle zaharren txoko honi; eta Juan Inazio Iztueta Etxeberria zaldibitar dantzazale eta euskaltzale sutsuaren bizitza eta lana aipatuz ekin ere. Iztuetaren maisutasunik handienetakoa euskara izan zen: gure hizkuntza goraiatzeko eta beronen arerioak jipoitzen ez da aspertzeko. Areririk gorrotagarrienak Euskalerriko bertako semeak zaizkio; ikasketak egitera kanpora, Kastilla aldera joan eta, oportet edo, etxera itzultzean gure Herriaren ohitura, kultura eta hizkuntzarekiko agertzen duten mesprezuak erraieraraino sumintzen du Juan Inazio zintzoa (grafia gaurkotuan):

“Jakinduria billa erbesteetan urteak igarorik, joan ziradenean ainbatean, edo gutxiagorekin, jaioterrira biribillatu oi diraden uanditu oen galanteorik aundiena da, etxera sartu bezain laister, beren guraso eta senideai esatea ezik, «Eh, callad, no habéis mas esa gerigonza propia sola de salvages ó de un rancho de gitanos (euskara, alegia): vergüenza he que me conozcan por el acento los castellanos, que yo tambien soi de turriz aburnis».

Eta oraindik ere ikusgarriagoak eta



adigarriagoak dirade oen guraso eta senide txoroak, nola egon oi diraden beren auzoetakoai esanaz, «Gure seme kanpoetan genduenan bart etorri zaiku etxera, txit galanturik, osasunarekin, eta guztiz jakinduria aundiakikoa. Aztu zaio bada euskera guzi guzia: ez du itztxo bat bakarra ere ez, asten, eta ez endeglatzen edo konprenditzen itz-kuntza onetan. Eta are gutxiago nai du bestek itzegitea ere. Beragatik, baldin arekin nai badezute itzezin, erderaz bearko diozkatzute adierazi zuen esakariak, nolabait bederik, bestela aseraturuko zaio, portitzkiro ala ere». Oek eta beste onelako milla astokeria esa-

narekin, uste dute egin txit jakintsun, beren seme eta anaia txoriburu puztua.

Jakinduriaren gordeleku guziak txit beterik, gañez eginta, alde guzietatik txirrian badariotela uste duten oek, edozein biltokitan beren erritarrakin batutzean, iraiñtze daukate itztxo bat ere euskaraz esatea. Eta inoiz edo berri agertzen badu norbaitek euskarazko itzkriburik, galanteorik aundiena dute esatea ezik, ezin irakurri dutela, eta are gutxiago endeglatu edo konprenditu zer esan nai deban.

Gisa onetan mintzatzearekin, nai dute eman aditzera ezik, badakitela dana eta datekean guzia. Egiazki, izan oi dirade enzuleen artean -ez ala ere gutxi- uste izaten dutenak ezen, erausle txar beretan arkitzen dala, jakinduriako putzu ondorik gabekoa; baña ez derizkiot nik, euskara ezin irakurri duela, eta are gutxiago endeglatu esaten duen euskalduna izan al ditekeala, txit zenzu aundiko gizona.” (Gipuzkoako Dantza Gogoangarrien Kondaira, 1824).

170 urte geroago ezer aurreratu ote dugu?

 Txuri Kapagiña

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA
☎ 16 07 07 OLABERRIA

BARANDI



TABERNA

Ampuero, 1 (Geltoki aurrean) Tf.: 16 13 18 ORDIZIA



MUJIK




BEASAIN

☎ 88 74 00

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa

fundación kutxa